



ZERGATIK EUSKARAZ?



Zergatik euskaraz? Seguruena denok buruan izan dugun galdera bat da. Baina... ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? Bada, euskara desagertzeko zorian dago, horregatik asko zaindu behar dugu. Zorionez, orain euskara aske bizi da, eta hau jakinda euskaldunon esku dago gure hizkuntzaren biziraupena zaintzea. Gure ustez, euskararen alde borrokatzeko garaia iritsi da. Zu prest al zaude?

Lehenik eta behin, euskaldunontzat euskara hizkuntza oso berezia eta bakarra dela nabarmendu nahi dugu, historia eta tradizio polit batean oinarrituta dagoena. Hizkuntza eta tradizio honek, gure bizimodua eta nortasuna eraikitzen lagundu digu. Beraz, euskaraz hitz egiteak gure izaera indartzen du. Gure kultura mantentzeko bidean, euskararen erabilera beharrezkoa da.

Bigarrenik, euskara urte askoz zapalduta, zentsuratuta, isolatua... egon den hizkuntza bat dela birgogoratzea garrantzitsua da. Francoren garaian jendeak erderaz egitea bultzatzen zuen eta euskaraz hitz egiten zutenek ondorioak jasaten zituzten. Hala ere, euskaldunek etxeetan eta ezkutuan hitz egin zuten. Garai hauetan euskaraz hitz egiteko ausardia izan zutenei esker, orain euskaraz hitz egiten jarraitu dezakegu. Hartu ditzagun pertsona hauek eredu bezala eta berdina egin dezagun.

Bukatzeko, euskara eta bere erabilera galtzen ari dela esan dezakegu. Geroz eta jende gutxiagok hitz egiten duelako hainbeste maite dugun hizkuntza hau. Poliki poliki itzaltzen ari den hizkuntza hau berpizten saiatu behar gara. Gure esku dago euskara ez galtzea, horretarako bakoitzak egunerokotasunean euskaraz hitz egiteko esfortzua egin beharko luke. Guztion ardura da euskararen alde borrokatzea.